



2022ko maiatzak 16-22 de mayo de 2022

# X. EKINAREN ASTEA

Ingurumenaren alde burututako ekintzak  
*Acciones realizadas en favor del medio ambiente*



Ingurumenaren aldeko ekintzak sustatu nahi dituen ekimena da, Aztertu Programan burutzen diren ohiko analisiak eta laginketak egiteaz harago.

Aztertun parte hartzen duten taldeek urteak daramatzate Euskal k ostaldea eta ibaiak ikertuz. Azterkosta eta Ibaialde kanpainetan egindako lana goraipagarria da, baina 2012an pauso bat aurrera eman nahi izan genuen. Horregatik EKINAREN ASTEA sortu zen.

Mota guztietako taldeek parte harzeko aukera izan dezaten (ikastetxeak, elkarteak, udal kolektiboak, familiak, etab) ASTE BETEKO epea ematen da ekintzak aurrera eraman ahal izateko.

EKINAREN ASTEA maiatzaren 22a barne hartzen duen astean ospatzen da beti, Nazioarteko Aniztasun Biologikoaren Eguna baita. Egun horretan, Aztertu Programak EKINAREN EGUNA ospatzen du, talde jakin batekin ekintza konkretu bat garatuz.

Zer da

# EKINAREN ASTEA?

Es una iniciativa que pretende fomentar actividades en favor del medio ambiente, más allá de los análisis y los muestreos habituales del Programa Aztertu.

Los grupos participantes en Aztertu llevan años analizando la costa y los ríos de Euskadi. El trabajo realizado en las campañas Azterkosta e Ibaialde es muy importante, pero en 2012 quisimos dar un paso más. Por ese motivo se creó EKINAREN ASTEA.

Para que todo tipo de grupos puedan participar (centros escolares, asociaciones, colectivos municipales, familias, etc) se da UNA SEMANA de plazo, durante la cual se deberán llevar a cabo las actividades.

EKINAREN ASTEA se celebra siempre la semana en la que cae el 22 de mayo, Día Internacional de la Diversidad Biológica. Ese mismo día, el Programa Aztertu celebra el EKINAREN EGUNA, desarrollando una actividad con un grupo concreto.

# ALDAMIZ IKASTETXEA (Bilbao)

## QR IBILBIDEA

Telefono mugikorrarekin edo tableta-rekin irakurri daitezkeen QR kodeen bitartez, ingurumen ibilbidea sortu dute Aldamiz ikastetxeko ikasleek. Bilboko Europa parkeko puntu ezberdinan topa daitezke koloredun kode hauek.



[PDF dokumentua](#)

[ARGAZKIAK / IMÁGENES](#)

## RECORRIDO QR

A través de códigos QR que se pueden leer con el móvil o la tablet, alumnos y alumnas del colegio Aldamiz han creado una ruta medioambiental. Estos códigos de colores se pueden encontrar en diferentes puntos del parque Europa de Bilbao.



# ALDAMIZ IKASTETXEA (Durango)

## DURANGOKO IBAIEN AZTERKETA

Bestalde, Aldamiz ikastetxeko Durangoko gelako kideek udalerriko eta inguruko ibaien analisia osatu dute.

Horretarako, beraiek egokitutako galdetegiekin egin dute errekkaren ikerketa.



[PDF dokumentua](#)

[BIDEOA / VIDEO](#)



## LIMPIEZA DEL RÍO AGUERA.

Por su parte, los compis del colegio Aldamiz del aula de Durango han completado el análisis de los ríos del municipio y sus alrededores. Para ello, han realizado el estudio del río con cuestionarios adaptados en el mismo centro.

# BASTIDA IKASTOLA (Bastida)

## IKASTURTEKO EKIMENEN LABURPEN-BIDEOA

Birziklatutako materialein eskulanak, zabor bilketa, logo berriaren sorrera, ikastetxeko baratzaren jaoitza, txangoen laburpena, udal foroan parte-hartzea... hainbat ekimen laburtzen dizkigute bideo honetan.



## VÍDEO-RESUMEN DE LAS ACTIVIDADES DEL CURSO

Manualidades con materiales reciclados, recogida de residuos, creación del nuevo logo, creación de la huerta del colegio, resumen de excusiones, participación en el foro municipal... nos resumen varias iniciativas en este vídeo.

[BIDEOA / VIDEO](#)



# CEU VIRGEN NIÑA (Vitoria-Gasteiz)

## IKASTETXEA ETA INGURUA GARBITZEA

Eskolako perimetroa, Batan ibaiaren ertza eta kanpoko patio eta lorategiak garbitu zitzuten. Helburua zen kide izatearen zentzua sustatzea, osasun-eta ingurumen-baldintzak hobetzea, erantzukizunak partekatzen ikastea, konpromisoak hartzea, lankidetza aritzea eta ikastetxea auzoko zaintzan eta errespetuan eredu gisa azaltzea.



## LIMPIEZA DEL CENTRO Y SU ENTORNO

Limpiaron el perímetro escolar, la orilla del río Batán y los patios y jardines exteriores. El objetivo era fomentar el sentido de pertenencia, mejorar las condiciones de salud y ambientales, aprender a compartir responsabilidades, asumir compromisos, cooperar y visibilizar al Colegio como referente en el cuidado y respeto en el barrio.

[PDF dokumentua](#)

## FABIAN LEGORBURU (Laudio)

## ZABORREN SAILKAPENA AZALTZEN DUEN BIDEOA

Ikastetxeko Ekoagenteak dira bideo honen protagonistak.

Bertan, ikastetxeen sortzen diren hondakinen kudeaketa zuzena azaltzen dute, sailkapenari eta honen ondoren jarduteko moduari arreta berezia jarriaz.



## VÍDEO SOBRE LA CLASIFICACIÓN DE LOS RESIDUOS

Los y las Ecoagentes del centro son protagonistas de este video.

En él se explica la correcta gestión de los residuos que se generan en el centro, con especial atención a su clasificación y a la posterior forma de proceder.

[BIDEOA / VIDEO](#)



## IPARRAGIRRE IKASTOLA (Bilbao)

## ORTUKO PRODUKTUEN LABORE PROZESUAREN AZALPENA

Kasu honetan ilarren prozesua era-kutsiko dizuegu, hauek ereiteko lurra prestazetik, platerean jateko prest euki arte.

ON EGIN!!!!



## CULTIVO DE LOS PRODUCTOS DE LA HUERTA

En este caso, os mostramos el proceso de los guisantes, desde la preparación de la tierra para su siembra, hasta su presentación en el plato.

ON EGIN!!!!

[BIDEOA / VIDEO](#)



# IRLANDESAS IKASTETXEA (Leioa)

## ITSASOKO PLASTIKOAK ETA BESTE INGURUMEN GAIAK

Itsasoan topa daitezkeen plastikoen inguruko ausmarketa egin dute, hondakinak berrerabiliz artelanak eginez. Ingurumen-gaiak jorratzen dituzten horma-irudi kolekzioa ere sortu dute.



[PDF dokumentua](#)

[BIDEOA / VIDEO](#)



## LOS PLÁSTICOS EN EL MAR Y OTROS TEMAS AMBIENTALES

Han reflexionado sobre los plásticos que se encuentran en el mar, reutilizando los residuos para crear algunas obras de arte. También han generado una colección de murales con diferente temática ambientales.

# ISPASTERKO ESKOLA (Ispaster)

## ZIGARRO PUNTEN ARAZOA

Kurtso hasieran Agenda 30ekin lotuta “Habitat Eguna” burutu genuen. Harrituta geratu ginen batutako zigarro punta kopuruarekin eta zerbait egin behar genuela erabaki genuen. EKINAREN ASTEA aprobetxatu dugu gure proposamena aurrera eramateko.



ENEN %30 ZIGARRO PUNTEN

[BIDEOA / VIDEO](#)

## EL PROBLEMA DE LAS COLILLAS DE CIGARRO

Al inicio de curso celebramos “Habitat Eguna”, actuación unida con la Agenda 2030. Nos quedamos sorprendidxs por la cantidad de colillas recogidas, y decidimos que había que hacer algo. Hemos aprovechado EKINAREN ASTEA para llevar adelante esta iniciativa.

# KAREAGA GOIKOA (Basauri)

## ORTU EKOLOGIKOA ETA ELIGAIEN JATORRIA

HHn eta LHn ingurumenaren alde lan egin dugu betidanik. Horrek ortu ekologikoa abian jartzera eraman gintuen, umeek nagusien laguntzaz kudeatzen dutena. Elikadura osasuntsua zer den eta elikagaien jatorria ezagutzeko baliabide aproposa.



[PDF dokumentua](#)

## HUERTO ECOLÓGICO Y ORIGEN DE LOS ALIMENTOS

En Infantil y Primaria siempre hemos trabajado por el medio ambiente. Eso nos llevó a poner en marcha el huerto ecológico, que lxs niñxs gestionan con la ayuda de lxs mayores. Un recurso ideal para conocer qué es una alimentación sana y el origen de los alimentos.

# LAURO IKASTOLA (Loiu)

## HONDAKIN BILKETA IKASTOLAN

Maiatzaren 20an ikastolan hondakin-en bilketa antolatu dugu maila guztietako ikasleek parte hartu dutelarik. Taldeetan antolatuta, ikastolako eremu desberdinatik ibilaldia egin eta hondakinak biltzen joan gara. Azkenik, hondakin mota bakoitza bere ontzira bota dugu.



[+info web](#)

[BIDEOA / VIDEO](#)



## RECOGIDA DE RESIDUOS EN IKASTOLA

El 20 de mayo hemos organizado una recogida de residuos con la participación de alumnado de todos los niveles. En grupos, hemos realizado un recorrido por las diferentes zonas de la ikastola recogiendo los residuos. Finalmente, hemos depositado cada tipo de residuo a su contenedor.

# MARIANISTAS (Vitoria-Gasteiz)

## 3R-AK LANDUZ EKINTZA EZBERDINEN BITARTEZ

Urtean zehar, ikastetxeko Ekoarduradunek 3 R-ak landu dituzte. Hasieran diagnostiko bat egin zuten, eta horri helputa, ekintza desberdinak burutu dira. EKINAREN ASTEA aprobetxatu genuen ekintza batzuk egiteko, eta egiten ari ziren ekintzak azaltzeko ere bai.



[+info web](#)

[PADLET](#)

[BIDEOA / VIDEO](#)

## TRABAJANDO LAS 3R-S A TRAVÉS DE DIFERENTES ACTIVIDADES

A lo largo del año, lxs Ekoarduradunak del centro han trabajado las 3 R-s. Al principio hicieron un diagnóstico, y en base a ello, han llevado a cabo diferentes acciones. Aprovechamos EKINAREN ASTEA para realizar algunas de las acciones y también para explicar otras que ya se estaban realizando.

# MARISTAS IKASTETXEA (Zalla)

## URAREN GARRANTZIA

Uraren Nazioarteko Egunean aurrera eramandako hainbat ekimen laburten dituen bideo hau sortu dugu, uraren trataeraren garrantzia lantzeko. Hormairudiak, eskulanak... hainbat izan dira ikastetxeko maila desberdinatan egin-dako lanak.



## LA IMPORTANCIA DEL AGUA

Hemos creado este vídeo que resume diferentes iniciativas llevadas a cabo en el Día Internacional del Agua para trabajar la importancia del trato hacia la misma. Murales, manualidades... han sido varios los trabajos realizados en los diferentes cursos en el centro.

[BIDEOA / VIDEO](#)



# MESEDETAKO AMA (Leioa)

## ZUHAITZ ETA ORNOGABEAK IKERTU

LH 3. mailako ikasleek EKINAREN ASTEA parte hartu genuen. Kurtsoan zehar ikasgelan eta ortuan ikasitako ornogabeak eta zuhaitzak zuzenean aztertzen atera ginen gertu dagoen Pinosolo parkera. Gainera, inguru-nea garbitzeko aukera izan genuen, baita naturaz gozatzeko ere.



## ANALIZAR ÁRBOLES E INVERTEBRADOS

Alumnado de 3º de Primaria participó en EKINAREN ASTEA. Salimos al cercano parque Pinosolo, a examinar directamente los invertebrados y árboles que habíamos conocido durante el curso en clase y en la huerta. Además, tuvimos la oportunidad de limpiar el entorno y también de disfrutar de la naturaleza.

[BIDEOA 1](#)[VIDEO 2](#)[ARGAZKIAK / IMÁGENES](#)

# MUTRIKU BHI (Mutriku)

## HERRIKO NAUTILUS LOGOA ETA EZKUR LANDAKETA

Ikasleek nautilus baten irudia auke-ratu dute Mutrikuko sinbolo bezala. Erabilitako plastiko zatiak flishean eta hondartzan jasotakoak dira.

Bestetik, Zuhaitzak landatzen zituen gizona liburuan oinarritutako irakurketa eta ezkur bilketa zein ereinketa laburtzen duen bideoa duzue.



## EL LOGO NAUTILUS DEL MUNICIPIO Y PLANTACIÓN DE BELLOTAS

El alumnado ha elegido un nautilus como símbolo de Mutriku. Los trozos de plástico utilizados han sido recogidos en el flish y en la playa.

Por otro lado, os presentamos un vídeo resumen con la lectura basada en el libro *El hombre que plantaba árboles* y la recogida y la siembra de bellotas.

[PDF dokumentua](#)[ARGAZKIAK / IMÁGENES](#)

# SERANTES ESKOLA (Santurtzi)

## HONDAKINAK, JOLASAK, NATURAREN SEKRETUAK...

EA2030ko Talde Gidariak eskolan egin-dako lan batzuk aurkeztu nahi dizkizugu. Gorputz Hezkuntzan jolasak asmatu dituzte etxetik eta jantokitik jasotako plastiko ontziekin, LH4 mailakoek portua behatu dute, HH5en naturaren ezagutza eta zaintzan jarri dute begirada eta HH2n tximeleten metamorfosisa ezagutu dute.

[PDF dokumentua](#)

## RESIDUOS, JUEGOS, LOS SECRETOS DE LA NATURALEZA...

Desde el Grupo Dinamizador de La AE2030 queremos presentaros algunos trabajos realizados. En Educación Física han ideado juegos con envases de plástico de casa y el comedor, en LH4 han analizado el puerto, en HH5 han puesto su mirada en el conocimiento y cuidado de la naturaleza y en HH4 han conocido la metamorfosis de las mariposas.

# TURTZIOZKO ESKOLA (Turtzioz)

## ARTEA IBAIKO HONDAKINEKIN

Maiatzaren 18an ibaira salto egin eta EKINAREN ASTEko jarduera burutu genuen. Aurtengo proposamena ederra izan da. Guggenheimeko Artea Ikasbeidea programan egonda, ibaitik atera ditugun hondakinekin, artelanak sortu ditugu. Ibon Garagarza artistari eskerrak eman nahi dizkiogu bihotz bihotzez.



[+info web](#)

[BIDEOA / VIDEO](#)



## RECOGIDA DE RESIDUOS EN IKASTOLA

El 18 de mayo nos lanzamos al río y realizamos la actividad de EKINAREN ASTEA. La propuesta de este año ha sido preciosa. Estando en el programa Aprendizaje del Arte del Guggenheim, hemos creado obras de arte con los residuos que hemos extraído del río. Agradecemos de corazón al artista Ibon Garagarza.

# TXANTXIKU IKASTOLA (Oñati)

## HAMARRETAKO OSASUNTSUA

DBH3.mailako ikasleek hamarretako osasuntsu eta jasangarria bultzatzeko asmoz kanpaina bat egin dute ikastolako etapa guztietako ikaslei zuzenduta: galdelegiak, bideoak, posterrak, aurkezpenak... hainbat pauso eta ekinen martxan jarri dituzte aurretiko eta ondorengo diagnostiko bat egiteko.



[PDF dokumentuak eta irudiak](#)

[BIDEOA / VIDEO](#)

## HAMARRETAKO SALUDABLE

Alumnxs de 3º de ESO han realizado una campaña dirigida a todas las etapas de la ikastola, con el objetivo de impulsar un Hamarretako saludable y sostenible: cuestionarios, vídeos, pósters, presentaciones... han desarrollado varios pasos e iniciativas para realizar un diagnóstico previo y posterior.

# ZABALEKO HLHI (Amurrio)

## BOC'N'ROLL, HAMAIKETAKOA GORDETZEKO ZORROAK

Eskolan plastikoaren erabileraren hausnarketa egin dugu eta konturatu gara pilo bat erabiltzen dugula. Zer egin dezakegu kontsumo hori murrizteko? Telazko zorroak eginez ez dugu etxetik plastikorik edo aluminiozko paperik erabili behar. 6. mailako ikasleak bolondres aurkeztu dira makinarekin zorroak josteko.



[PDF dokumentuak eta irudiak](#)

## BOC'N'ROLL, FUNDAS PARA GUARDAR EL HAMAIKETAKO

Tras reflexionar sobre el uso del plástico en la escuela, nos hemos dado cuenta de que utilizamos un montón. ¿Qué podemos hacer para reducir su consumo? Haciendo fundas de tela no tenemos que usar plástico ni papel de aluminio. Los de 6º se presentaron voluntarios para coser las fundas con ayuda de la máquina.

## ZALLA BHI (Zalla)

### “KmO” BARAZKI ETA LANDAREAK

Zallako baratzetako barietate lokalak (piperrak, zerbak, tomateak...) institutura eraman zituzten ikasgelaka azalpenak emateko. Barazki-landare hauek duten garrantzia azpimarratze-ko balio izan zuten aurkezpenak. Bukaneko, ikasleek landare aleak eraman zituzten etxeen landatzeko.



### PLANTAS Y VERDURAS “KmO”

Llevaron al instituto variedades locales de las huertas de Zalla (pimientos, acelgas, tomates...) para dar explicaciones en las aulas. La presentación sirvió para subrayar la importancia que tienen estas plantas hortícolas. Para terminar, los alumnos se las llevaron para plantarlas en casa.

BIDEOA / VIDEO



## BERTENDONA BHI (Bilbao)

### ESKULAN EZBERINAK MATERIAL BIRZIKLATUAREKIN

Plastikako irakasleak, EKINAREN ASTEaren inguruau hitz egin zigun, eta lehiaketan parte hartzen animatuko ginela erabaki genuen. Horretarako, material birziklatuarekin eskulantxo bat egitea proposatu zigun. Ez genuen ezer erosi behar, etxeen edo institutuan genituen gauzak erabiltzea zen helburua.



### DIFERENTES MANUALIDADES CON MATERIAL RECICLADO

En plástica nos hablaron de EKINAREN ASTEA y nos animaron a participar en el concurso. Para ello, nos propuso hacer manualidades con material reciclado. No teníamos que comprar nada, se trataba de utilizar las cosas que teníamos en casa o en el instituto.

BIDEOA / VIDEO



ARGAZKIAK / IMÁGENES



## NIÑO JESÚS IKASTETXEA (Vitoria-Gasteiz)

### ADREILU BIRZIKLATUAREN PROIEKTUA

“Adreilu birziklatuaren proietktua” ingurumen eta, konkretuki, berrerabilera eta birziklapenaren aldeko ekintza bat izan da, izan ere, adreiluak komuneko tutuekin egin genituen. Proietktua hiruhilabete oso bat iraun du baina bere oinarrizko fasesak EKINAREN ASTEA eta Nazioarteko Ingurumen Egunean eraman dira aurrera.



### PROYECTO ADREILU BIRZIKLATUA

“Adreilu birziklatuaren proietktua” ha sido una acción a favor del medio ambiente y, en concreto, de la reutilización y el reciclaje, ya que los ladrillos los hicimos con tubos de papel higiénico. El proyecto ha durado todo un trimestre pero sus fases básicas se han llevado a cabo durante EKINAREN ASTEA y el Día Internacional del Medio Ambiente.

PDF dokumentua

BIDEOA / VIDEO



# SAN VIATOR IKASTETXEA (Sopuerta)

## ELIKADURA EKOLOGIKOA, LOKALA JASANGARRIA ETA OSASUNGARRIA

Ikasleek elikagai jasangarriak nola ekoizten diren ezagutzeko hitzaldia jaso zuten. Sukaldaritza tailer batean hainbat erreza eta egiten ikasi zuten Enkarterrin landatutakoak elikagai ekologikoekin. Karrantzako baserri batera joan ziren eta bertan ogi ekologikoa egiten ikasi zuten.



## ALIMENTACIÓN ECOLÓGICA, LOCAL SOSTENIBLE Y SALUDABLE

*El alumnado recibió una charla para conocer cómo se producen los alimentos sostenibles. En un taller de cocina aprendieron a elaborar diferentes recetas con alimentos ecológicos de las Encartaciones. Fueron a un caserío de Karrantza donde aprendieron a hacer pan ecológico.*

[PDF dokumentua](#)

# MUSKIZKO IKASTOLA (Muskiz)

## HONDARTZAREN GARBIKETA ETA HONDAKINEN DATU BILKETA

Muskizko Ikastolako 6. mailako bi taldeek parte hartu dugu EKINAREN ASTEAn, hondartzaren garbiketa eta jasotako zaborraren datu bilketa eginez. Datu horiekin hainbat ondorio atera ditugu eta, era berean, erakusketa bat antolatu dugu hondakinekin Ikastola barruan.



## LIMPIEZA DE LA PLAYA Y RECOGIDA DE DATOS DE LOS RESIDUOS

*Hemos participado en EKINAREN ASTEA con los dos grupos de 6º de Muskizko Ikastola, realizando una limpieza de la playa y la recogida de datos de la basura encontradas. Con estos datos hemos sacado varias conclusiones y, asimismo, se ha organizado una exposición con los residuos dentro de la Ikastola.*

[PDF dokumentua](#)

# SAN MARTIN AGIRRE IKASTETXEA (Bergara)

## IBAIAREN AZTERKETA, ARAZTEGIRA BISITA ETA “EZKURRAK” PROIEKTUA

“Ezkurra” proiektua kurtsoan zehar burutu da, baina EKINAREN ASTEA aprobaetxatu dugu kimuen aldaketa egiteko. Bestetik, 4. mailakoek hainbat ekintza burutu dituzte ibaiaren inguruan: Deba ibaia aztertu, etxeetako ur-zikinekin zer gertatzen den ikusi, araztegian ikusitakoa hausnarta...



## ESTUDIO DEL RÍO, VISITA A LA DEPURADORA Y PROYECTO “EZKURRAK”

*El proyecto “Ezkurra” se ha llevado a cabo a lo largo del curso, y hemos aprovechado EKINAREN ASTEA para el cambio de los retoños. Además, los de 4º han llevado a cabo varias acciones entorno al río: análisis del Deba, seguimiento de las aguas sucias de las casas, reflexionar sobre lo visto en la depuradora...*

[PDF dokumentuak](#)

[BIDEOA 1](#)



[VIDEO 2](#)



# MUNOA IKASTETXEA (Barakaldo)

## ZAIN DEZAGUN PLANETA! PROIEKTUA

Murritzua, berrerabili eta birziklatu kontzeptuak zer esan nahi duten landu dugu, baita horietako bakoitzak gure egunerokotasunean nola integratu dezakegun ere. Jarraian birziklapenaren gaian sakontzen joan gara: gure herriean dauden zabor-ontzi desberdinak aztertu, Garbiguneak zer diren ikasi...



[PDF dokumentua](#)

[BIDEOA / VIDEO](#)



## PROYECTO ZAIN DEZAGUN PLANETA!

Hemos trabajado qué significan los conceptos de reducir, reutilizar y reciclar, y cómo podemos integrar cada uno de ellos en nuestro día a día. A continuación hemos ido profundizando en el tema del reciclaje: analizar los diferentes contenedores de basura que hay en nuestros pueblos, aprender qué son los Garbigunes...

# LA ANUNCIATA IKASTETXEA (Donostia)

## IKASTURTEKO EKINTZAK, EKINAREN ASTEAREKIN BAT

EKINAREN ASTEA indartzeko eta ikasleak kontzientziatzeko eta motibatzeko, EA2030 batzordeak adin guztiarako jarduera desberdinak antolatuditu, ikasle, irakasle eta gurasoen laguntzarekin: hamaiketako jasangaria, tailerrak, irteerak, oinbusa, marraski eta logo lehiaketa, erakusketak...



[+info web](#)

[PDF dokumentua](#)

[BIDEOA / VIDEO](#)



## LAS ACTIVIDADES DEL CURSO, UNIDAS EN EKINAREN ASTEA

Para potenciar EKINAREN ASTEA y concienciar y motivar al alumnado, la comisión de EA2030 ha organizado diferentes actividades para todas las edades, con la colaboración de alumnxs, profesorxs y madres-padres: hamaiketako sostenible, talleres, salidas, oinbus, concurso de dibujos y logos, exposiciones...

# FRANCISCO DE VITORIA BHI (Vitoria-Gasteiz)

## “IKASLE BAT, HASI BAT, ZUHAITZ BAT” ETA HAMAIKETAKO JASANGARRIA

Proiektuaren bidez, hazi bat landatuda ikastetxeko ikasle bakoitzeko. Hiru egunez lurra banatu zen etxeen geneukan edozein frutaren hazia landatzeko, nahiz eta ekodelegatuek haziak eskaini genizkion nahi zuenari. Era berean, hamaiketako osasungarri eta jasangarri bat sustatu da.



[PDF dokumentuak](#)

[BIDEOA / VIDEO](#)



## “IKASLE BAT, HASI BAT, ZUHAITZ BAT” Y ALMUERZO SOSTENIBLE

El proyecto ha consistido en plantar una semilla por cada alumnx del centro. Durante tres días se repartió tierra para plantar la semilla de cualquier fruta que tuvieramos en casa, aunque lxs ecodelegadxs ofrecimos semillas para quien lo prefiriera. A su vez, se ha promocionado un hamaiketako saludable y sostenible.

# EGIBIDE (Vitoria-Gasteiz)

## BIZITZA BIZIKLETAN IBILTZEA BEZALA DA

Maiatzean amaitu dugu Egibiden VII. Mugikortasunaren Astea. Ikasturte honetan, Arriaga, Jesús Obrero eta Nieves Cano campusetako DBHko ikasleengen jarri dugu arreta. Auke-ratutako gaia bizikleta izan da eta, modu espezifiko eta praktikoagoan, bizikleta mantentzea eta konpontzea.



## LA VIDA ES COMO ANDAR EN BICI

En mayo hemos finalizado la VII. Semana de la Movilidad de Egibide. Este curso hemos puesto el foco en los alumnos de ESO de los campus Arriaga, Jesús Obrero y Nieves Cano, el tema elegido ha sido la bicicleta y, de forma más específica y práctica, su mantenimiento y reparación.

[PDF dokumentua](#)

[ARGAZKIAK / IMÁGENES](#)



## Gogoratu 2021 urteko lanak Recuerda los trabajos del año 2021 **IX. EKINAREN ASTEA**

TURTZIOZKO ESKOLA

ELGETA ESKOLA

MARISTAK ZALLA

MERCEDARIAS IKASTETXEA

VIRGEN NIÑA IKASTETXEA

PRESENTACIÓN DE MARÍA IKASTETXEA

EGIBIDE JESUS OBRERO

SERANTES IKASTETXEA


LA SALLE BERROZPE

MARIANISTAS IKASTETXEA

LAURO IKASTOLA

MARIAREN LAGUNDIA

## ALAZNE IKASTETXEA (2021eko irabazlea)



## AZTERTU PROGRAMA

Tel: 902 160 138

[aztertu@euskadi.eus](mailto:aztertu@euskadi.eus)

[www.euskadi.eus/aztertu](http://www.euskadi.eus/aztertu)